

LEHEN MAILA

JARDUNALDIKO EMAITZAK		
Espanyol	2-4	Betis
Athletic	1-3	Osasuna
At. Madril	1-0	Valladolid
Celta	2-1	Alaves
Valentzia	2-0	Racing
Malaga	1-1	Vila-real
Recreativo	1-1	Deportivo
Mallorca	1-5	Real Madril
Sevilla	0-1	Reala
Rayo	1-0	Bartzelona
HURRENGO JARDUNALDIA		
Betis	—	Rayo
Osasuna	—	Espanyol
Valladolid	—	Athletic
Alaves	—	At. Madril
Racing	—	Celta
Vila-real	—	Valentzia
Deportivo	—	Malaga
Real Madril	—	Recreativo
Reala	—	Mallorca
Bartzelona	—	Sevilla

TALDEA	PT	J	I	B	G	KANPOAN	I	B	G	GUZTIRA	I	B	G	GOLAK	A	K
▲ 1. Reala	29+10	13	4	2	0	4	3	0	8	5	0	24	14			
▲ 2. Valentzia	25+15	13	5	1	1	2	3	1	7	4	2	22	7			
▲ 3. Celta	24+8	13	3	3	1	4	0	2	7	3	3	17	9			
▲ 4. Betis	23+10	13	4	1	1	2	4	1	6	5	2	24	14			
■ 5. Mallorca	23	13	3	1	3	4	1	1	7	2	4	20	20			
■ 6. Real Madril*	21+11	12	3	2	0	2	4	1	5	6	1	22	11			
7. At. Madril	21+6	13	3	4	0	2	2	2	5	6	2	19	13			
8. Deportivo	20+1	13	2	2	2	3	3	1	5	5	3	18	17			
9. Malaga	18	13	3	3	1	1	3	2	4	6	3	18	18			
10. Bartzelona	16+2	13	3	3	0	1	1	5	4	4	5	18	16			
11. Vila-real	15	13	3	1	2	0	5	2	3	6	4	13	13			
12. Osasuna	15-4	13	3	0	3	1	3	3	4	3	6	15	19			
13. Athletic	15-7	13	3	1	3	1	2	3	4	3	6	19	26			
14. Racing	14-3	13	2	2	2	2	0	5	4	2	7	12	15			
15. Valladolid	14-6	13	2	2	2	2	0	5	4	2	7	11	17			
16. Alaves	13-8	13	2	2	2	1	2	4	3	4	6	15	23			
17. Rayo	12-7	13	2	3	2	1	0	5	3	3	7	15	22			
▼18. Sevilla*	11-3	12	2	3	2	0	2	3	2	5	5	8	11			
▼19. Espanyol	10-11	13	2	1	4	1	0	5	3	1	9	14	25			
▼20. Recreativo	9-13	13	1	2	4	1	1	4	2	3	8	10	24			
▲ Txapeldunen Ligara ■ UEFAra ▼ Bigarren A Mailara																
*Partida bat gutxiago																

BIGARREN MAILA

JARDUNALDIKO EMAITZAK		
Kordoba	2-2	Las Palmas
Levante	0-1	Salamanca
Murtzia	3-0	Ejido
Tenerife	1-1	Albacete
Ferrol	1-1	Leganes
Compostela	2-3	Sporting
Oviedo	1-2	Xerez
Getafe	1-1	Elx
Zaragoza	1-0	Numancia
Almeria	2-1	Badajoz
Eibar	1-1	Terrassa
HURRENGO JARDUNALDIA		
Kordoba	—	Levante
Salamanca	—	Murtzia
Ejido	—	Tenerife
Albacete	—	Ferrol
Leganes	—	Compostela
Sporting	—	Oviedo
Xerez	—	Getafe
Elx	—	Zaragoza
Numancia	—	Almeria
Badajoz	—	Eibar
Las Palmas	—	Terrassa

TALDEA	PT	J	I	B	G	KANPOAN	I	B	G	GUZTIRA	I	B	G	GOLAK	A	K
▲ 1. Zaragoza	28+9	14	5	2	0	3	2	2	8	4	2	18	9			
▲ 2. Levante	24+9	14	4	2	1	2	4	1	6	6	2	25	16			
▲ 3. Xerez	24+3	14	3	2	2	4	1	2	7	3	4	17	14			
4. Albacete	23+7	14	3	4	0	2	4	1	5	8	1	17	10			
5. Murtzia	22+8	14	4	2	1	2	2	3	6	4	4	15	7			
6. Salamanca	21+2	14	2	2	3	4	1	2	6	3	5	12	10			
7. Ejido	21	14	3	3	1	2	3	2	5	6	3	13	13			
8. Terrassa	20+2	14	2	4	1	2	4	1	4	8	2	15	13			
9. Ferrol	20-1	14	3	4	0	2	1	4	5	5	4	16	17			
10. Elx	19+3	14	2	2	3	2	5	0	4	7	3	15	12			
11. Getafe	19+2	14	3	2	2	2	2	3	5	4	5	23	21			
12. Almeria	18-3	14	3	3	1	1	3	3	4	6	4	17	20			
13. Eibar	17-3	14	3	4	0	1	1	5	4	5	5	11	14			
14. Badajoz	17-10	14	3	1	3	2	1	4	5	2	7	10	20			
15. Las Palmas	16+1	14	3	2	2	0	5	2	3	7	4	16	15			
16. Tenerife	16+1	14	2	5	0	0	5	2	2	10	2	16	15			
17. Sporting	16-3	14	2	5	0	1	2	4	3	7	5	12	15			
18. Compostela	14-2	14	2	2	3	1	3	3	3	5	6	14	16			
▼19. Leganes	13-4	14	1	3	3	1	4	2	2	7	5	10	14			
▼20. Kordoba	12-6	14	2	2	3	0	4	3	2	6	6	8	14			
▼21. Numancia	12-7	14	3	1	3	0	2	5	3	3	8	13	20			
▼22. Oviedo	10-8	14	0	3	4	2	1	4	2	4	8	15	23			
▲ Lehen Mailara ▼ Bigarren B Mailara																
*Partida bat gutxiago																

IZENA ETA IZANA

VALERY KARPIN (REALA)

Burdinazko gizona

Jon Balenziaga |

Gogorra. Berdegunean zein berdegunetik kanpo, gogorra dirudi, baita izaera edo jokabidez ere. Burdinazko gizona Narvan (Estonia) jaio zen, 1969ko otsailaren 2an. 33 urte ditu. Norkesango luke. Fisiko-ki mutikoa dirudi. Borisekin batera iritsi zen udan Realera, eta asturiarra taldekideen sa-soia hartu nahian zebilen bi-tartean, Karpin iritsi eta gutxi-ra prest zegoen, denboraldiko lehen neurketarako.

Realean estreinaldia 1994ko irailaren 4an egin zuen, eta txuri-urdinek 0-2 irabazi zuten. Bi denboraldi Realean egin ondoren, Valentziak fitxatu zuen, sei milioi euroko etete klausula ordaindiz. Hauts dezente harrotu zituen bere martxak, baina gero Valentzian nahi bezala aritu ez zenez, denboraldi bakarra egin zuen han. Gero Celtak fitxatu zuen, eta Galizian lehenengoa zela erakutsi zuen.

Oso maila ona eman zuen, eta taldeko liderretariko bat izan zen, Mostovoierekin bate-ra. Vigoko telebista batean telebista saio bat ere egin zuen, kirolarekin batera zerikusirik ez zuena. Udaleko aferak, hirikoak... horrelakoak aztertzen ziren bere saioan, eztabaida eta guzti. Karpinek aurkezle eta moderatzaile lanak egiten zituen. Baina batzuk Jainkoaren pare jartzen zuten beza-la, beste batzuek deabruarenaren pare jar-tzen zuten, eta iragan denboraldi amaieran Cel-tako presidente Horacio Gomezekin ika-mika indartsua izan ondoren, azkenean ez zuen kon-traturik berritzea lortu. Nahiz eta libre egon, amaiera arte ez zuen inork fitxatu eta azkenean Reala izan zen, di-da batean, bere fitxaketa be-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Karpin gero eta gusturago dago Reala egiten ari den lanarekin.

rriz ere gauzatu zuena. Bere etorrerak aldeko eta kontrako iritziak sortu zituen. Izan ere, bat-zuk polemika zalea dela diote; berak, ordea, Realak aurkeztu zuen egunean zera bota zuen: «Egia esatea polemikoa izatea baldin bada, or-duan bai, polemikoa naiz».

Errusiarra ez da inoiz kikiltzen den horietari-koa, eta taldeari ere beste itxura bat eman dio, indartsuagoa. Hori bai, bere meritua goratze-arekin batera ez dira gainerako taldekide guz-tienak ahaztu behar. Karpini, neurrian onartu behar zaio berea.

KALEAN GORA-KALEAN BEHERA



Sendo, sasoi onean eta zorteko

Asier Legarda-ereño |



Pablo Garcia eta Alfredo euskarri titularren hutsunea zela eta, zalantza ugari zen gorri-txoek San Mamesen azken jardunaldietako bolada onari eutsi ahal izango zioten ala ez jakiteko. Javier Aguirreren taldeak oso itxu-ra ona eskaini zuen, ordea, eta etxetik kan-poko lehen garaipena eskuratu zuten nafarrek Bilbon. Osasu-na sendo azaldu zen San Mamesen. Azken boladako lan fisiko ikusgarria berretsi, eta Athleticen baloiaren irteera ito egiten zuten, aurkaria goian presionatuta. Patxi Puñal eta Iñaki Mu-ñoz Alkiza eta Gurpegi baino gehiago izan ziren zelai erdian. Lehenbiziko aldiz, hasieratik jokatzeko aukera zuen Muñozek igandean, eta joko ikusgarririk egin gabe, inoiz ez zen nahastu, eta indartsu eta erne azaldu zen une oro. Gainera, gol bat egin zuen, eta berak aitortu bezala, gehiago eskatzerik ez da. Talde-ak oso sendo jarraitzen du atzean —Sanzol bikain batekin—, erasoari ez dio uko egiten, eta San Mamesen hainbeste kosta-tzen zaien lanean ere zorteko izan ziren, golak egiterako or-duan, alegia. Ea boladari eusten dioten.



Atzera emaitzan eta jokoan

Haritz Gallastegi |



Denboraldi hasierako Athletic ikusi genuen igandean San Mamesen, Athletic txarrena, alegia. Celtaren aurka azken unean eskura-tutako garaipenarekin batera, talde zuri-go-rrian itxuraldaketa etorriko zela zirudien. Garaipenekin batera, jokoa ere hobetuz zihoala zirudien. Erasoan erakutsitako gaita-suna ez eze, defentsako beharrean ere beste sendotasun bat nabari zen. Galdu arren, talde sendoaren itxu-ra eman zuen Athleticcek Ruiz de Loperan. Ameskeria bat bes-terik ez zen izan. Osasunaren aurka betiko akatsak egin zituen taldeak. Estrategia jokaldiak defendatzerako orduan ezinean aritu ziren —Muñozek ondo aprobetxatu zuen aukera—, eta hirugarren golean lekuz kanpo egon zen atzealdea —Aloisik aukera paregabea izan zuen, eta australiarrak huts egin arren, bere atzean bakar-bakarrik agertu zen Ivan Rosado—. Eraso-an, berriz, denbora gutxian gauza asko egiten saiatu ziren, bai-na beti ezin zaio partidari buelta eman. Derbian asmatu ez arren, Athleticcek baditu baliabideak erasoan. Baina partida bakoitzeko bi gol jasota, ezin da gauza handirik egin.